

ttüpi-ttapa

1994.eko ekainak 16 • 136. zenbakia


Erreportaia

Udal publizitatea: difusio gutxikoa eta garesti ordaindua



**SAN JUAN SUAN
ERRETZEKO PREST**

UDAN EGIN GOGOR EUSKARARI



UDAZKENEAN MINTZATUKO GARA

LESAKA • ARANTZA • ETXALAR • LEITZA • DONEZTEBE

BARNETEGIAK

uztailean, abuztuan, irailean - *irakaz* 6r, hirur eta lau astetakoak.

LESAKA~(948)637796 IRUÑEA~(948)222246 *MAZIO* GASTEIZ~(945)288922 ERRIJOXA~(941)110087

BERTAKOEK 'EXTERNO' MODUAN ERE APUNTATZEN AHAL DIRA

EGUR - LANAK

ZURGINDEGIA

- SUKALDE MOBLEAK
- ATE ARRUNTAK eta SEGURTASUNEZKOAK
- ESKAILERAK, SOLAIRUARTEAK eta TEILATUAK
- OHIZKO TARIMAK eta FLOTANTEAK
- MOBLEAK NEURRIRA
- PARETAN SARTZEKO ARMARIOAK
- SUKALDE eta ELKARTEETARAKO MAHAIK
- KALITATE ONENeko EGURREZKO LEIHOAK
- LEIHO MIXTOAK:
 - Aluminioa + egurra (haritza edo sapely)



ERAKUSKETA:

Altzate karrika, **BERA** • Tfnoa: 948-630117 (Arratsaldez bakarrik)

DATUAK

❖ 51 urte ditu Donezteben sortutako gizon honek, hirugarren belaunaldi edo generaziokoa da herriko altzarigintzan eta bere alabak ere bide hori segitzekotan dago.

❖ Lan desberdinetan aritu bada ere, bere burua altzarigintza sektoreko profesionaltzat hartzen du.

❖ Denbora librean hegaztiak zaintzea gustatzen zaio; usook, eperrak, ahateak, antzarak...

❖ Honetaz gain, musikaria dugu eta hau ere familiaratik heldu zaio: bere aita udal txistularia eta Doneztebeko bandan ezaguna izana da.

Cipriano TELLETXEA "Txipano": «Negozioetan profesionaltasuna da gauzarik garrantzitsuena»


NOLA IKUSTEN DUZU ZONAKO KOMERTZIOEN EGOERA?

Ongi dagoela uste dut. Sektore guzietan zaila dago baina aurre egin behar zaio egoerari, jendea izutu eta ez da ausartzen aurrera egitera.

Altzarigintza ongi dabil aurten, iaz murragoa izan zen. Orokorrean ere ongi ikusten dut egoera, baina toki guztietan erraten da gaizki dagoela eta kejtzera ohitu gara. Hemen etxeak eta kotxeak erosi eta langileak ordaintzen direla ikusten da eta arazo larririk ez dagoela. Halere, denda berri pila ireki dira eta norbaitek huts egingen du. Bada jendea negozio bat irekitzen duena profesionala izan gabe. Kontua ez da esposizio polita edukitzea eta saltzea, jakin behar da non dauden fabrikak, hornitzaile onak bilatu, negozioetan erne eta bizia izan behar da. Negoziotan profesionaltasuna da gauzarik garrantzitsuena.

ETA LAN EGOERA?

Dударик gabe Lesakako Laminazioak zonako motorra bezala funtzionatzen du eta fa-



brika honen egoerak garrantzi handia du. Bertzela egoera onean gaudela uste dut.

ALTZARIGINTZAN KONPETENTZIA HAUNDIA DAGO?

Bai, pixkanaka gehiago gaude zonan eta honetaz gain denda haundiak daude Iruña inguruan eta Gipuz-

koan, baina ausartak gara. Une honetan 2.000 m²ko esposizioa dugu eta Aparanen bertze 800 m² erosi ditut, lokal berri honetan etxea dekoratzera sartuko gara, nere alabaren laguntzarekin. Gure estruktura erraxa da, familia negozioa da eta denok batera gaude, dugun guzia emateko prest. Denda haundiak berriz, azpiegitura handia behar dute, langileak, argia eta dekorazioa ordaindu... horrek produktua garestitu egiten du.

BERTIZ MERKATARIEN ELKARTEAN ASOZIATUA ZAUDE. NOLA IKUSTEN DUZU EGIN NAHI DEN LANA?

Ez dute miraririk egingen, baina zonarako positiboa izaten ahal dela uste dut, errate baterako, orain atera berri den gida oso interesgarria da, honela herriko nahiz kanpoko bezeroak ikusten dute zein komertzio mota dagoen hemen. Dena dela elkarteko partaideen artean badago aski ideia interesgarririk eta denborak erranen du.

▷ «Orokorrean ongi ikusten dut ekonomiaren egoera, baina toki guztietan erraten da gaizki dagoela eta kejtzera ohitu gara. Ez dago arazo larriegirik.»

UNTA ADMINISTRAZIONE DE LOS MONTES BIDASOA Y BERROA

SUBASTA DE A...

FORFOR...

LEITZA

Bera
 ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA
 BERAKO Udalak, 1994.eko apirilaren 18an eginiko Udal Osoko bileran, Arau Subsidiarioen aldeketaren proiektu...

LESAKAKO UDALA
OBRA LEHIAKETA
 Obra: Apartamentu babes-tuak egiteko proiektua.
 Kontrataren bidezko...
 kontua: 82.170.000 Ptas.
 BEZa h...
 Vocal 2º Juan C. Ecay Ciáuriz

AYUNTAMIENTO DE LEITZA
CONCURSO
 Obra: Proje...

GOIZUETAKO UDAL
 ARAU SUBSIDIARIOEN SGS UP DESJABETZEKO ESPEDIENTE...
 Udal honek 1.993.eko Abenduaren 2an egindako Herri honetako Planeamenduko Arau Subsidiario Unitatea burutzeak

DONEZTEBE-SANTESTEBA
 APROBACION INICIAL DE MODIFICACION PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS...
 El Ayuntamiento de...

ELGORRIAGAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ELGORRIAGA
CONTRATACION OBRAS "REFORMA POSADA MUNICIPAL: BAR PLANTA BAJA"
 OBRA: Concurso.
 Contratación y ejecución de las obras del Plan de Reforma Posada Municipal: Bar Planta Baja.
ELICITACION: Máximo de 5.702.458 pesetas IVA.
DE EJECUCION: Dos meses.

CONSORCIO TURISTICO DE BERTIZ
CONCURSO PARA LA REALIZACION DE ACTIVIDADES DE PROMOCION
 El Consorcio Turístico de Bértiz convoca un concurso para la realización de distintas actividades de promoción aprobadas por la Asamblea General para el año 1994, en aplicación de su Plan de Desarrollo Turístico.

Lesaka
 APROBACION INICIAL DE MODIFICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO
 El Pleno de este Ayuntamiento...

UDAL PUBLIZITATEA: DIFUSIO GUTTIKOA ETA GARESTI ORDAINDUA

BERTAKO KOMUNIKABIDEK (TTIPI-TTAPA, XORROXIN ETA KARRAPE) ASKOZ ERE DIFUSIO HAUNDIAGO IZAN ARREN, UDALEK IA BETI EGUNEROKO ETARA JOTZEN DUTE EUREN PUBLIZITATEA ARGITARATZEKO ORDUAN.

TESTUA
 JOXEMANUEL IRIGOIEN

Udalek bide desberdinak erabiltzen dituzte euren agindu eta erabakiak publizitatzerakoan. Aspaldiko sistema dute, herriko zenbait lekutan noizean behin bando-paperak jartzea. Gaur egun ordea, mass-mediaren intzidentzia soziala areagotu denetik, gero eta gehiago baliatzen dira hauetako media batzuetaz. Egunkariak dira zehazki, publizitate hori herritarrengana berriak kanalizatzeko gehienetan aukeratzen diren bideak, nahiz eta egunkari hauek bertako komunikabideak baino aunitzez ere difusio itikiagoa izan.

nagusiki hiru iragarri mota zabalatzeko jotzen dute gure eskualdeko udalek prentsara. Batetik «Lurzoruaren Legea» rekin zerikusia duten aferak publizitzeko; gehienetan Arau Subsidiarioen behin behineko edo behin betiko onarpenak publizitzeko edo baita berarekin nolabaiteko aldakuntzak egiten direnean ere. Lurzoruaren Desjabetze Prozesuak ere atal honetan sartzen dira. Azpimarratzekoa

da kaso hauetan, zentzuzkoa dela publizitatearen den gai horretaz batez ere herritarrek enteratzea, bertakoak alegia, izan ere espediente guzti hauek epe jakin batez jendearengana uzten baitira udal horretako herritarrek nahi dituzten alegazioak tramitatuzko. Bigarrenik «kontratuak eta subastak» publizitzeko. Atal honetan sartzen dira udalek publikoki egiten dituzten era guztietako kontratuak (obrak, erosketak...) eta baita subastak ere (oihantekanteak, ondasun pu-

blikoen salmentak...), eta hirugarrenik, «Lanpostu deialdiak» daude. Bi kaso hauetan ere guztiz garrantzitsua da batez ere herrikoak udalak egiten duen eskaintzaz informatuak egotea.

Hiru alor nagusi hauek gain, interes puntualeko bertze zenbait iragarki ere ikusten dira batzutan han-hemenka.


DIFUSIO GUTXI ETA GARESTI ORDAINDUZ

Edo Diario de Navarra, edo Diario Vasco, edo Egin edota Egunkaria dira gure inguruko udalek euren iragarkiak zabaltzeko gehienetan hautatzen dituzten hedabideak. Komunikabide hauek, bakoitza bere aldetik, gure eskualdean dituzten zabalkunde kopuruak kontutan harturik (ikus ondoko koadroa), eta informatu nahi den populazioa batez ere bertakoa dela ahaztu gabe, iragarki horiek herrikoengan benetan difusio edo inpakto ttikia lortzen dutela baieztatzen ahal da zalantzarik gabe. Honekin batera, egunkari horien publizitate-tarifak eskualdean bertan argitaratzen den prentsa eta dauden irratiek eskeintzen dituzten tarifekin konparatzen baditugu, aipatu iragarkiak, duten inpaktorako, benetan garesti ordainduak daudela ere baieztatzen ahal da.

Hau da, eskualdeko hedabideek eskeintzen duten inpakto kostea aunitzez ere hobea da bertzeekin konparatuz.

ORDUAN, ZERGATIK EZ PUBLIZITATU BERTAKO KOMUNIKABIDEETAN?

Aurretik errandakoa kontutan hartuz, zaila da zentzuzko erantzunik aurkitzea. Lege desberdinek zein udal iragarki bidali behar den prentsara aipatzen dutenean, badirudi, herri-komunikabideen presentzia eta berauek duten difusio masiboaz ahaztu egiten direla, eta udalek, orain arte ikusitakoaren arabera, badirudi ez diotela kaso gehiegirik egiten difusio kontuei. ■



BANAZ BESTEKO DIFUSIOA ASTEGUNETAN ETA IGANDETAN

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	egin	DEIA	Egunkaria	Noticias	SUD OUEST	ttipi-ttapa
BAZTANALDIA	374-558	71-98	80-126	9-11	12-17	134-188	0-0	1.460
Baztan (*)	339-523	71-98	76-120	9-11	12-17	131-185	0-0	1.290
Urdazubi	25-25	0-0	3-5	0-0	0-0	3-3	0-0	102
Zugarramurdi	10-10	0-0	1-1	0-0	0-0	0-0	0-0	68
BORTZIRIAK	127-231	603-799	154-192	13-14	32-35	53-61	0-0	1.815
Arantza	3-3	10-10	5-5	0-0	0-0	0-0	0-0	162
Bera	55-113	300-420	65-95	1-2	11-14	25-30	0-0	773
Etxalar	17-18	28-29	16-17	1-1	5-5	8-9	0-0	173
Igantzi	12-12	45-60	3-10	0-0	0-1	0-0	0-0	139
Lesaka	40-85	220-280	65-65	11-11	16-15	20-22	0-0	568
LEITZALDEA	113-206	93-166	136-186	6-6	16-17	21-25	0-0	854
Areso	4-4	1-1	10-0	0-0	0-0	0-0	0-0	53
Goizueta	0-0	30-50	45-65	0-0	10-10	0-0	0-0	187
Leitza	109-202	62-115	81-121	6-6	6-7	21-25	0-0	614
MALERREKA	227-366	96-163	56-78	1-2	14-12	67-77	0-0	1.136
Doneztebe	158-275	70-132	38-54	1-2	8-6	35-38	0-0	272
Ituren	0-0	0-0	10-15	0-0	3-3	0-0	0-0	117
Sunbilla	30-52	25-30	7-8	0-0	1-1	27-34	0-0	160
Herrietan(2)	39-39	1-1	1-1	0-0	2-2	5-5	0-0	(2) 587
SARA	0-0	4-3	16-15	3-2	2-1	0-0	250-230	97
Guzira	841-1.361	867-1.229	442-591	32-35	76-82	275-351	250-230	5.755



*Saltoki eta
posta
zerbitzuetik
lortutako
datuen
arabera*

DATU ITURRIAK: Saltokiak eta Posta Zerbitzua
 (1) Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.
 (2) Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izan ezik, korreoz hartzen direnak barne.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
 FRANKEO ITUNDUA: 34/79
 TIRADA: 5.800 ALE
 ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
 HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
 31780 BERA
 TFNOA.: 63 11 88
 FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irigoien. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Marta Urria, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo Susperregi.

Inprimategia: Gertu (Oñati).

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Borzizrietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Gartzain eta Doneztebeko gertaeren tratamendua prentsan

Komertziala ez bada ere, errespetoa beti mesedegarria da



Zarbo IBARROLA
 DVko berriemailea

Ez dut inola ere epaitu nahi bertze egunkarietaz azken gertaerei eman dieten tratamendua, baina argitu nahi nuke zein izan den gure komunikabidearen jokabidea. Jabetzen naiz, halere, holako garrantzia duten gertaeratan, kazetarion nahitaezko betebeharrak dela gertatutakoaren berri ematea gure ohizko irakurleei, baina jakina, objetiboki informatuz. Honek, nire ustez, ez luke kaltetu behar nire informatzaile lana, zenbaitzutan baieztatzen ahal ez ditudan hainbat datu aipatu gabe utzi behar baditut ere. Informazioa ikuspegi honekin begiratu, beharbada ez da komertziala izanen, baina errespetoa mesedegarria da, batez ere errespetoz jokatzeko duenarentzat. Idazten dudanean ezin dut ahaztu jendea hezur-mamizkoa dela, eta bere izen ona, neurri batean, gure esku dagoela. Azken finean, errespeto eta zuhurtasun kontua da.

Egunkari batzuk morboaz baliatu dira gehiago saltzeko



Begoña ALBERRO
 Gizarte laguntzaile

Egunkari batzutan azken gertaera hauek nahiko gogor, arin eta izugarriko morboarekin tratatu direla uste dut. Argi dago telebistan orain dauden programa batzuk morbo handia sortarazten dutela jendearengan, eta nolabait ere, zoritxarrez, horretaz baliatzen dira egunkari batzuk ere gehiago saltzeko. Bertzeen sufrimenduz baliatzea negoziario egiteko ez da batere etikoa nere ustez. Azkeneko asteotako gertaerekin horrela gertatu da, eta eman den informazioa eta argazkiak, dena borobildua, morboz beteak egon dira. Egunkariaren helburua informazioa hutsa ematea izan beharko luke, pertsonen intimitatea errespetatuz, epaitu gabe eta epaiketarik sortarazi gabe.

Egia edo gezurra izan, pertsona horiek betirako markatuak



Karmele TOLOSA
 TTIPI-TTAPAKO publizista

Berria soil-soilik ematea nahikoa zen, "rumorologiaz", irudimenez eta argazkiz landu gabe. Jakin, badakigu zergatik egiten diren horrela, diruaren truk, pertsonak kontutan hartu gabe. Grabeago iruditzen zait oraindik, gertaera horiek inguru berezi batean eman direlako, hau da, herri tikitetan, jende guziaz ezaguna den toki batean, pertsona horiek egin edo ez egin, egia edo gezurra izan, markatuta egonen dira bere bizi guzira. Doneztebeko kasuan gertaera bera juzgatu gabe, erreflexio tiki bat: zer gertatuko litzateke bertze gizonetako bat jarri beharrean, emakumezkoa balitz? Oihartzun berdina izanen zuen berriak? Kuartelera joanez gero "ukitu" batzuk salatzerakasu berdina egiten zidaten? Horrelako kasuak behatzen ibiltzen diren neskak zihurrenik batek baino gehiagok jasan izanen dituzte baina noski ez dira salatzen.

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ☞ Fax Publikoa
- ☞ Enkuadernazioak
- ☞ Inprenta lanak • fotokopiak
- ☞ **%25eko**

deskuentoa
 diska, kasette eta liburuetan
 Legarra 9, © 637030 - LESAKA



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mogleak eta manparak •
- Pareta ispiluak •
- Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021
 Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991
 Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

BOTA BERTSOA



San Juan suak

Gema ALEMAN

Boztango Bertso Eskolako
Neurria: Hamarreko handia

Juan izeneko gizon bat bizi omen zen garai batean bizi izan zen denbora hartan ongi portatu zenean saindu izena jarri zioten ongiaren izenean eta ordutik besta bat gehior San Juanen omenean.

Azkar Sanjuanak badatozela egunak ganez aurrera paper ta kartoi zaharrak bildu errebistekin batera ta gero denak joanen gara egur pila bat biltzera San Juan bezperan sua piztuta denak bertan saltatzera.

IRAKURLEAK MINTZO

Gaur ni, bihar zu izan zaitezke

Zoritxarrez, maiz gertatzen den zerbait kontatuko dut. Kasu honetan, maiatzaren 6an, ortzirala, gaueko 12,30etan, Elizondoko ostatu batean, hogeita hamar jende ikusi eta bizi izan ginuena hain zuzen. Musika giroan, pote bat hartu bitartean solasean ginauden. Bapatean, modu zakarrean eta sekulako oihuak eginez, berdez jantzitako zazpi sartu ziren: "Guardia Civil, apagar la música y todos contra la pared!!!" oihukatuz. Hasieran guztia txantxetan zelakoan denak harrituta gelditu ginen, baina gero ere, dena egiz gertatzen ari zela konturatzeko aukera izan ginuen. Ostatu jabeek, ahalegin guztiak egin zituzten gertaera galeratzeko, baina dena alferrik! Haietatik bi ostatu bameraino sartu ziren, linterna batekin xoko guziak miatuz. Bertze batek, katxeoari ekin zion, eta nola gainera! Haien gorroto aurpegiak eta irriz eginiko komentarioek dena adierazten zuten. Ixiltasunean murgilduta, tentsioz betetako giro hartan, inpotentzia zen egoeraren jabe. Zer egin holakotan? Gertaera

hauen aitzinean ez gaitzeko trankil gelditu, deus pasatu ez balitz bezala. Zer puntutaraino ailegatzen da haiek duten poterea? Zein modutan erabiltzen dute? Gaur katxeoa eta bihar? Gaur ni, bihar zu izan zaitezke.

IRANTZU. ELIZONDO.
ENA. - 33.444.502

Erle-kaxak salgai

Leitzako Lanbide Eskolako REMeko 1. mailako ikasleak kaxa batzuekigen aritu gara teknologiko tailerretan. Hasieran ez genekien ezer ere ez erleetaz, baina lehenengo liburuetan informatu ginen eta ondoren hitzaldi bat izan genuen erleetaz Leitzako Jose Buldaineekin. Txarlaren ondoren erleen kaxak egiten hasi ginen. Hasieran nahiko arraro egiten zitzaigun neskei taladro, destornilladore, tornilo, etab... erabiltzea. Baina azkenean erleen kaxak ongi atera zaizkigu. Herrian zehar dauden kartelak ikusi dituzuelakoan gaude, Karrape irratitik ere esango dute. Gure helburua erleetaz eta erleen kaxak egiten jakitea zen eta hori lortu dugu. Orain erle kaxak saltzera atera ditugu eta konpromezurik gabe gon-

bidatzen zaituztegu guk egindako erle kaxak ikustera eta ea eroatera animatzen zareten, prezio interesgarrian baitaude. Erle kaxak saltzea lortzen badugu, diru horrekin afari bat edo zerbait egiteko asmotan gabiltza. Hau jakinda pentsatzen dugu etorriko zarete! Itxoiten daude! Eta hotsegin nahi baduzue deitu 510280 telefonora.

LEITZAKO L.H. ESKOLAKO
REMEKO 1. MAILAKO IKASLEAK
EIDER SAGASTIBELTZA
MAITE ALDUNTZIN
GORKA ARRETXEIA

Sarrallako sutea

LAINOPE Ingurugiro taldeko ok, gure gaitzespena eta salaketa agertu nahi dugu herritar guzaien aitzinean, joan den apirilaren 29an, Berako Sarrallako dermion Goardia Zibilek, tiropraktiken ondorioz eragin zuten sutea dela eta. Bixtan da, aipatutako sute horrek, kalte larriak sortu dituela inguru horretan eta harrigarria iduritzen zaigu gertakizunaren inguruan eman den ixiltasuna edo estalnahia. Horrexegatik, hemendik aitzina, horrelako gertakizunek oihartzun zabala goaizatea esperodugu.

BERAKO LAINOPE
INGURUGIRO TALDEAARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:


• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak





Egin 94-VI-3

«Leitzan 115 baserri daude batatz beste eta 75 karobi errez izango ziren lehen eta baziren baserriak bi zituztenak».

Joxe SAGASTIBELTZA

Leitzako karegilea
Egin 94-VI-3

«Jaz Igor Elortza izan genuen Euskalerriko eskolarteko txapel-dun, eta nor obartu

zen ordea? Txapelketa honek ez du deus laguntzen».

Xabier SILVEIRA

Lesakako bertsolaria
Argia 94-VI-5

«Gaur egungo telefono edo faxa zen garai batean tobera, informazioa pasatzeko sistema on bat».

Dionisio MUJIKA

Lesakako tobera jolea
Egunkaria 94-VI-8

◆ **Gehien gustatzen zaizun musika?**

❖ Euskal musika.

◆ **Goizaldean dantzan edo bertso kantari?**

❖ Lagunekin punttuka aritu.

◆ **Bizio bat?**

❖ Lagunekin ateratzea.

◆ **Irakurtzen duzu komunean?**

❖ Ez.

◆ **Zer aldatuko zenuke Lesakan?**

❖ Futbol zelai berria behar beharrezkoa da.

◆ **Sanferminetan, nori ez zenion arkuia eginen?**

❖ Politiko batzuri.

◆ **Zubigainekoa dantzatu edo Gure Txokoari irabazi?**

❖ Udan Zubigainekoa eta neguan haiekeri irabazi.

◆ **Datorren urtean Beti Gazte Preferenten mantenduko da?**

❖ Seguro baietz.

◆ **Partidu aitzinetik, spaguettiak edo xerra eder bat?**

❖ Spaguettiak.

◆ **Txuleta bat jaterakoan kolesterolean pentsatzen duzu?**

❖ Orain bai. Analisisiak egin eta altu xamarra omen dut.

◆ **Gosaltzeko Cola-Cao edo arraultzea txistorrekin?**

❖ Cola-Cao eguneru.



Endika MENDEGIA

Lesakako harakina, dantzaria eta Beti Gazteko jokalaria

© 631076 • BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

BOTXO ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK

ERRO BIDAIAK

- ✗ HERRIAK
- ✗ MENDIAK
- ✗ TURISMOA
- ✗ TREKING eta BIDAIA ALTERNATIBOAK

BIDAIA AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADURANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRULEN

MANUEL TABERNA
Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
Tfnoa: 63 10 27 • BERA

Bera

Goardia Zibilak Josu Unsiön atxilotu zuen eta Joxelu Telletxearen etxea miatu


Unsiönek tratu txarrak salatu ditu

KRISTINA BOAN

Ekainaren 3an Goardia Zibila Josu Unsiönaren etxean sartu zen goizaldeko ordu batako aldera. Etxea miatu ondotik atxilotua eraman zuten. Astelehen goizean (ekainak 6) Madrileko Entzutegi Nazionaletik pasa ondotik, gartzeleratua izan da. Bere abokatuaren erranetan, «*Josuk bazuen tratu txarren seinalerik*».

Astelehen goiz horretan ere, Joxelu Telletxearen gurasoen etxea goitik beheiti miatu zuten emakumezko agenteek, bertan zeuden bitartean gurasoak gogorki mehatxatuz. Gau horretan bertan bere pisuko atea hautsi eta arakatu zuten. Geroztik prezintaturik dago pisua.

Atxiloteta hauek direla eta, aste guzian barrena burutu dira salaketa ekintzak, kontzentrazio eta manifestazioak. Larunbatean



Aste osoan elkartasun ekintzak burutu ziren Beran



Josu Unsiönek torturak salatu ditu

zonalde mailako manifestazioa antolatu zen Beran gaueko 9etan.

Jon eta Iñaki Irazoki Euskal Herriko Txistulari Txapelketaren irabazleak

Iñaki eta Jon Irazoki, 14 eta 16 urteko gazteak maiatzaren 28an parte hartu zuten Euskadiko Txistulari txapelketako finalerdian. Bi lehengusuek ekainaren 5ean Gasteizen ospatu zen finaleko txartela eskuratu zuten, 16 urte baino gazteagoen mailan. Iñakik 'San Juan' ize-

neko dantza nahasketa jo zuen eta Jonek berri, 'Eztai dantza' deituriko bertze euskal dantza nahasketa eskeini zuen.

Iñakik lehenbiziko saria eskuratu du (50.000 pezeta) eta Jonek hirugarrena (20.000 pezeta).

Irakasle gisa Amaia Iza donostiarra dute.

ttipi-flash

❖ Margo Erakusketa

Ekainaren 24a bitarte Joseba Pereiraren margo lanak ikusgai egonen dira Kultur Etxean.

❖ Piszina

Uda honetarako bonoak Herriko Etxean daude salgai. 7-10 urtekoek 645 ptatan, 10-16koek 1.520tan eta 16tik goitikoak 3.810tan.

❖ Bestetako

programaren azalerrako argazki lehiaketa martxan dago. Lanak hilabete bukaera baino lehen aurkeztu behar dira.

❖ Musika kontzertua

Musika Eskolak ikasturtearen akaberran antolatzen duen kontzertua ekainaren 18an izanen da. Bertzalde, hurrengo ikasturterako aurrematrikulazio epea zabalik dago.

❖ Lartzin mendia

Eskalatzeko gune bat Peña Ratan paratu zutela idatzi genuen azken alean, baina irakurle batek mendi horren berezko izena Lartzin dela erran digu.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

JOSEMA RAMOS

Zolak akutxilatuta eta
barnizatzen ditut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

Lesaka

Beti Gazte elkartearen egoitza berria igandean inauguratuko da

Goizean, himnoa joko dute herriko musika talde ezberdinek eta herri bazkaria izanen da Kasino jatetxean

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak Alondigan duen egoitza berriaren inaugurazio ofiziala igande honetan egingen da. Goizean, txistulari, akordeolari eta musika bandak karrikaz karrika ibiliko dira, Beti Gazteko himnoa joaz. Musika Feliciano Beobidek eginga da eta moldaketak Joaquin Silgueroenak. Hildako bazkideen aldeko mezaren ondotik aurrekua dantzatuko du Endika Mendegiak egoitza atarian, bertsolariak arituko dira eta Manolo Arozenak prestatutako letrarekin abesbatzak himnoa kantatuko du. Musika bandaren ekitaldia izanen da eta elkartearen trofeo eta argazkien erakusketa ere ikusgai egonen da. Ondoren, herri bazkaria ospatuko da Kasinon. Bazkalondoren, aurtego kirol sariak banatuko dira. Azkenik, txarangak bere saioa eskeiniko du.



Txoko-Txiki sariak banatu dira

Arg.: KARMELE

Tantirumairu ikastolak antolatutako 'Txoko-Txiki' ipuineta bertso-paperlehiaketan sariak banatu dira. Ipuinetan hiru maila

egin dira. Lehenbizikoan Irantzu Pastor izan da irabazlea, bigarrenean Urtzi Iraizoz eta hirugarrenean Alaitz Rekondo. Ber-

tsoetan, Maite Bidartek irabazi du lehenbiziko mailan eta Alaitz Rekondok bigarrenean. Gainerako sarituak ere argazkian ageri dira.



Beñardo lantzi eta Carmelo Iturria udaltzainak ekainaren hasieratik lanean ari dira. Hiru hilabetez praktketan aritu ondotik ofizialki izendatuko dituzte.

Arg.: Aitor

ttipi-flash

- ❖ **Sokatira**
taldeko hamabi mutil Estatu Batuetako Elko hirira joanen dira ekainaren 20an, bertan zenbait erakustaldi egiteko. Nafarroako 680 eta 640 kiloko txapelak irabazi ondotik sari polita izanen da, bi astez egonen baitira.
- ❖ **Jesus M^a Calvo**
korrikalariak Pariseko kamareroen laisterketan parte hartuko du ekainaren 19an. 8,5 kilometroko proba honetan, Europa guziko kirolarietako parte hartuko dute. Duela pare bat aste Donostiakoa irabazi zuen.
- ❖ **Xabier Silveira**
bertsolariak Euskalerriko eskolarteko txapela eskuratu zuen, ekainaren 3an Urruñan egindako finalean. Bere ondotik Maddalen Lujanbio gelditu zen.


ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

Etxalar

Igerilekuen estreina eriruaren 18an

Azken lanak bukatzen ari dira

PELLO ETA ALBERTO

Eriruaren 18an, larunbata, eguerdiko 12,30etan, zabalduko dituzte beren atak igerileku berriek, eta Iruñetik agintari batzuk bertaratzea espero da. Hurrengo egunean, igandea, jende guziaz zentrat irekiak egonen dira piszinak, herritarrek ikusi ahal ditzaten.

Jubilatuena eguna

Giro goxoak lagun egin zien jubilatuak maiztaren 15ean beren eguna ospatzekoan, tenperatura ona eguraldiaren aldetik eta elkarren arteko adiskide giroa, bazkariak eta dantzaldiak indartu zuena, seguro, bertze baterako ere. Aintzinetik txistulari eta dantzarien omenaldia ere



Argazkia: PELLO

Dantzariak erdian direnean, soinulariak bazterrean gelditzen dira

eskeini zitzaizten, hildako elkartekideen aldeko meza ondotik.

Bidaia

Bertze lau herrietako haurrekin batera, maiztaren 30-31 eta ekainaren 1a itsas baz-

terrean egin dituzte. Donostian ordu batzuk pasa ondotik, Gipuzkoako Diputazioak Orion duen atarpean egin zituzten bigau eta bi egun. Ingu-runeaz aldatzeaz gain,

Gipuzkoako Diputazioak eskeintzen duen aukera probexten dute horrela, gipuzkoarrei bezalako prezioak eta erraztasunak ematen baitizkie Bidasoaldeko eskolei.

Personaia



Ainhoa Arburua

Herriari buruzko lanen bat egiten ari omen zara. Ikasketen barnean, jendarteko beharren neurketak egiteko erran zidaten, eta nik Etxalar aukuratu dut. Galdera batzuk egin dizkiot adin desberdinetako ehun herritarri, ea zein diren euren ustez herriko beharrak, ea zerbitzuak nahikoak diren... **Unibertsitatean aprobatazeko balioaz gainera bertze zerbitutarako balio du lan horrek?** Emaitzak aginduko du. Erantzunak interesgarriak badira eta herriaz argibiderik eskeintzen badute, Udalarari uzten ahal diot, neurketan agertzen denaz probexteko. Jendeak bere iduria agertzeko izaten duen kezka delakoz, zailago bihurtzen da horrelako lan bat.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ALBARTETXEA
JATETXEA
HARAGI ETA ARRINETAN
ESPEZIALIZATUA
Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora
Antoiu 26 • LESAKA

HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR
JATETXEA
Dagoeneko zabalik dago Etxalarko plazan, ostatu eta jatetxe berria
© 635290 • ETXALAR

Heldu den larunbatean izanen da herriko abesbatzaren kontzertua

Orain dela aste pare bat su eman zioten piszina berrietako aldagelei



OSKAR TXOPERENA

Igantziko abesbatzak ekainaren 18an arratsaldeko 9etan eskeiniko du bere urteroko kontzertua herriko elizan. Hamabi kanta abestuko dituzte guztira eta tartean txistulariek ere izanen dute prestatzen ari diren kantak eskeintzeko aukera. Urtero kontzertua polita izaten da eta aurten ez da guttiago izanen.

Piszinako aldagelei su eman zieten

Gaixtakeria handia egin dute akautzen ari diren piszinetako aldageletan. Orain dela aste pare bat, igande arratsaldez, gasolinaz betetako ontzi bat bertara



Bat edo beste falta bada ere, gimnasia egin duen taldea dugu hau. Aurtengoz nahikoa omen dute

Arg.: OSKAR

eramane eta su eman zioten. Ondorioz, paratu berria ziren azulejoak, zola eta argi indarraren instalazioa hondatuak gelditu ziren, egun batzuetako lan berria paratuz.

Honek mesede handia ekarriko zion egin duenari!!

60 milioi pezeta gostako da Igantziko Bentako zubi gerria egitea

Aspaldi xamar gabiltza Bentako zubiarekin bueltaka. Udaltxean daukate dagoeneko informazioa. 60 milioi pezeta gostako omen da, guztira 8 metrotako zabalera



Ohitura denez, Ternida egunean egin zuten lehenengo komunioa Lourdes, Aitor, Miren eta Edurnek

Arg.: OSKAR

hartuko du, 6 metro ibilgailuentzako eta bazter bakoitzean metro bana jendea ibiltzeko. Egiten diren zati berriak bertako harriekin estaliko dira, lehenengo itxura ahalik eta

gehiena gordetzeko. Erraten dutenez, 3 hilabete iraunen ditu obrak eta bitartean Lesaka aldera doaien trenbidetik ibili behar dugu, aitzinetik moldatu behar baitute.

LOZOTEGI - JAIONE

Itzea 3, 630786 - BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

LORA DENDA

TXIRULA
Bittira LESAKA
☎ 627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoak
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

HARITZPE

JATETKEA

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik boberena xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

• ETXALAR (NAFARROA) •

Arantza

Zazpi neska-mutikok ospatu zuten lehenengo komunioa

Elizako erlojuak, bertzalde, sekulako ezkil-jotzeak egiten ditu gaueko hamabietan

MARTA ITURRIA

Ekainaren 5ean ospatu ziren aurtengo komunioak. Besta Berri egunak koinziditzen zuela eta hau ere ospatu zen; halere, prozesioa elizan bertan egin zen, eguraldiak ez baitzuen maindire txuriak lurrean paratzeko lagundu. Zazpi haur ziren komunioa egiten. Meza bukatu eta denak kontent! Gero beti bezala, pintxo goxoak jan ahal izan genituen Zahar Txokoan, elizak gonbidatuta.



Letizia, Joseba, Natalia, Julio, Daniel, Xabi eta Aintzane lehenengo jaunartzea egin zuten

Arg.: MARTA

deaermitaraino igozen. Halere, mendian bertan bazkaltzera ez zen jende aunitz animatu, baina gelditu zirenak giro ederrarekin bazkaldu ahal izan zuten, trikitilari eta guzti.

Egun horietan, zakur bat agertu zen herrian. Ternidan bertan, egun berean galdu zela uste da. Axun bere etxean gordetzeaz ardura hartu du, Xorroxinera bi aldiz deitu omen du

baina inork ez du oraindik erantzunik eman. Ea TTIPI-TTAPAREN birtartez iristen garen jabearengana, Axunkez ezik zakurrak berak ere jabea agertzeko gogoia baitu.

Gimnasia klaseak

Hirugarren adinarentzako prestaturik dauden gimnasia klaseak antolatuak dira aspaldi honetan. Lehengoan, Bera eta Igantzikoekin batera eskursio bat izan zuten, lehenik Bertizen pasiatu eta gero Doneztebeko Zahar Txokoan bazkaria izan zuten. Ederki pasatu omen zuten!

Elizako erlojua

Kontuz ibili elizako erlojuarekin, azken boladan gaizki baitabil. Egunez ordua ongi markatzen duen arren, gaueko 12etan hamabi ezkil jo beharrean berrogeitamar edo gehiago jotzen hasia baita.

Ternida Eguna

Maiatzaren 29an ospatu zen Ternida eguna. Urtero bezala, bertze lekuetatik bezala, Arantzatik ere jen-



IRUNGO errepeidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Mazzoa
Zahar antzokia - Tzapatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ATERPE jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

M^o Dolores Mirana TOPOGRAFOA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hobereena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

Sunbilla

Kurtso bukaerako jaialdia izanen da ekainaren 24ean

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak prestatutako 'Emakumearen formakuntza' izeneko programa hasia da

IXABEL ETA JOSUNE


Ekainaren 24ean, aurtengo ikasturte bukaerako azken egunean, haurrendako jaialdi bat izanen da.

Bertan, poniak, basurdeak, oilarrak eta bakilak ikusi, harrapatu eta ibiltzeko aukera izanen dute.

Aipagarria da, ekitaldi hau antolatzeko dirua Eguberritan Olentzeroarekin lortu zutela hurrek beraiek.

Emakumeen formakuntzarako programa

'Formación para la mujer' deritzon emakumearen formakuntzarako programa bat prestatu du Nafarroako Gobernuak Sunbillako emakumeentzat. Ekai-



Haize errota honen bidez TB kate pribatuak hartzeko antenen argi-endarra lortzen da

Haize errota telebista pribatuak ikusteko

Telebista kate pribatuak ikus ahal izateko haize errota bat paratu da auzolanean. Errota honekin, kate pribatuak hartzeko

antenen argi indarra lortzen da.

Orain arte, Arantzako Gainkoborda baseritik hartzen zen argi indarra. Orain

herrian bertan izanen dugu antenak hornitzeko indarra, baina eskerrak luzatzen dizkiogu arantzatar horiei.

naren 13an hasi zen ikastaroa baina oraindik interesatuak dauden guztiek Ulibeltzak elkartean izena eman dezakete. Gogoratu behar da ikastaro hau adin guztietako emakumeentzat izanen dela.

Pistak moldatzeko laguntza

984.584 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak euriteen ondorioz hondatutako pistak moldatzeko. Laguntza hau Ermitagoia-Askin-Bostorraz arteko pista moldatzeko eman da eta aurrekontu guztia- ren % 75a suposatzen du. Juan Carlos Zamora izanen da lanen zuzendari teknikoa.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



INGELES IKASTAROA UZTAILAN

Bertze urtetan bezala, aurten ere, ingeles ikastaroa uztailaren 4etik 29ra goizez 9,15etatik 13,45 orduetara irakasle "natiboekin". Apuntatzeko deitu 592006 Tfnoa

Doneztebe

San Pedroak ekainaren 28tik uztailaren 3ra ospatuko dira

Bortz milioi t'erdiko aurrekontua dute aurtengo herriko bestak

TXEMA ETA KARMELO

Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 3a arte herriko bestak ospatuko dira. Gehigarrian agertzen den besta programaren aurrekontua 5.480.804 pezetakoa da. Gauza franko izanen da ikusgai, denon gustokokoak ote diren ikusi behar. Ongi pasa.

Josu Inziarte urte beterako kontratatua

Udaletxean administrari laguntzaile lanposturako urte bateko kontratatz hartu dute ekainaren leian Josu Inziarte. Hiru urte kontratatuak izan ondoren, bi aukera zuden: bata Josu Inziarte fijo egitea eta bertzea langabezira igorri eta



Denon gustokoak izan daitezela herriko bestak

Herriko talde bat izanen da laxoa finalean

Igande honetan arratsaldeko 5etan Bear-Zana plazan jokatuko den erdifinaleko bigarren partiduan erabakiko da Doneztebeko zein talde (A edo B) iristen den laxoa txapelketako finalera. Bertze erdifinala, Oitz eta Irurita artean jokatuko dute eta finala, hilaren 26an, eguerdiko 12etan Bear-Zanan.

INEMek eskeintzen dituen laguntzaz baliatuz, langile berria hartu. Udalak azken aukera hau onartu zuen eta Josu bera izan da berriro ere aukeratua.

Bortxaketa sexuala...

Izan omen dela eta ez dela, zer erran franko sortu du herrian eta inguruan. Doneztebeko bi mutilen ar-

tean gertatutakoa argi ez badago ere, gazte horietako bat atxilotua izan zen, ondotik libre gelditu zelarik. Gerta-

tu dena larria izanik ere, zenbait egunkariak eta komentario aunitzek oraindik larriagoa bihurtu dute afera hau.

zintitatearen **URTARO BERRIEN ARROPAK**

San Migel auzoa 27, 450883 - DONEZTEBE

GURUTZE

- Goxokiak eta eskolako materiala
- Egunkariak eta aldizkariak
- Izoziak

Nagusia 2 • ☎ 450389 • DONEZTEBE

ZURE GORPUTZA ZURE ALTXORRA DA

Aukeratu zure neurria . Hobetu zure figura.

Zentru mediko-estetikoa

- Jean Paul Bouchet Doktorea (faculté de Medicine de Paris)
- Amaya Picabea (estetikan diplomatua)

Behar duzun laguntza eskeintzen dizugu, pertsonalizatutako programei esker

Gainera:

- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Azken nobedatea: ZELULA FRESKOEN aplikazioa

LEHENDABIZIKO KONTSULTA DOHAIN

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Amaya

Lurrindenda • Apaindegia

Amezitia karrika z/g
☎ 450163 • DONEZTEBE



Belen Azpiroz atxilotu eta libre utzia izan da


Detenitua egon den bitartean, kolpeak eta tratu txarrak eman dizkiotela salatu du

IBAN ISASI

Belen Azpiroz iturandarra ekainaren 3an detenitu zuen poliziak Iruñean, lanetik ateri zenean, eta "talde armatuarekin hartuemanak edukitzea" leporatzen ziotela.

Iruñean, bertze lagun batzuekin duen pisua erregistratu zuen poliziak. Erregistro honetan pisuko neska bat nerbio atake batek jo zuen eta ospitalera eraman behar izan zuen poliziak.

Belen Madrilera eraman zuten, bertan kalabozo eta galdetegi gelaren arteko bidean flesioak egitera behartu zuten. Gainera, poltsaren tortura eta



kolpeak jaso zituen. Bertzalde, bere inguruko lagun eta familiarikoen aurkako mehatxuak hartu omen zituen.

Larunbatean dekla-

ratu zuen Belenek poliziaren aitzinean. Biharamonean Entzutegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aurretik pasatu zen. Honek libre utzea

agindu zuen, askatasun kondizionalean, baina ez zituen pape-rak berehala sinatu ahal izan eta Belenek bertze ordu bat esperatu behar izan zuen kalabozoan, Garzon kafe bat hartzetik itzuli arte.

Bitartean, Ituren eta inguruan zenbait asanblada eta manifestazio burutu ziren.

Belnek emozioa sentitu omen zuen Berara ailegatu zenean, Josu Unsion, Beran detenitutako gazteari laguntza emateko joandako autobusean itzuli baitzen.

Halere, momenturik emozionanteena Iturenen sartu eta hainbertze jende berari ongi etorria egiten ikusi zuenean izan zen.



Xabier Ariztegi
16 urteko gazte oiztarra istripuz hila

Maiatzaren 30ean gertatu zen istripua. Mototik erori ondotik buruan izugarrizko kolpea hartu eta koman eraman zuten Iruñara, baina bizitzeko itxaropenik gabe, Xabier Ariztegi Irigoien gaztea.

Bera, organu emale edo donantea zenez, baliagarriak ziren gortutz zatiak kendu arte bihotza bizirik kontu zioten.

Ekainaren 4ean izan zen hileta Oitzen eta izugarrizko jendeketa bildu zen bertara.



- OTORDUAK •
- LOGELAK •

Tfnoa: 450793

ETXANDI TXOKO
erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • Tfnoa: 45 04 91

TABERNA

ETXEA

EMAKUME, GIZON ETA HAURREN ARROPA KONFEKZIOA
GORTINAK ETA KARRILAK

Merkatarien karrika 12, Tfnoak: 45 00 07 - DONEZTEBE



Legasako Monika Migueltorenak maketa plazaratuko du udarako

Musika doinu ezberdinetako hamabi piezaz osatua dago 21 urteko akordeolariaren lehen grabazioa

TTIPI-TTAPA

Udara honetarako kalean izanen da Legasako Monika Migueltorena akordeolariaren lehen grabazioa.

Maketa honetan hamabi pieza sartu ditu 21 urteko neska gazte honek, tangotik hasita jotak bitarte, pasodobleak eta bertze zenbait musika estilo ere landuz. Erran bezala, udaran salgai izanen da eskualdeko ostatu eta dendetan.

Monika Migueltorenak 21 urte ditu eta Nekazal Ingenieritzako bigarren maila estudiantzen ari da gaur egun. Musika estudioei dagokienez, 12 urterekin hasi zen akordeoia jotzen Miguel Iparraguirre irakasle zuela. Ge-



Bederatzi urte daramazki Monikak akordeoiaren soinua lantzen

roztikan, bere maila hobetzen joan da eta aurtun lehen grabazio

hau egiteko aukera suertatu zaio. Ez al da azkena izanen!

San Juan bezperan herri afaria antolatu du Zubietako Elutsa elkarteak

Elutsa elkarteak antolatuta herri afaria ospatuko da Zubietako plazan San Juan bezperan. Etxe bakoitzak jarri beharko du jatekoa eta edatekoa, aulkiak eta mahaiak, ta Elutsako gazteak arduratuko dira etxeetan biltzeaz eta plazan paratzeaz. Suarekin malabarismoak egiten dakizkiten batzuk ekartzen saiatuko da Elutsa elkarteak eta musika izanen ez denez, zortzikoa jotzera bederen norbait agertuko al da...

Honetaz aparte sua

izanen da plaza bazterrean, nahi duenak saltoka aritzeko eta nahiko musika izanen da ezkilekin.

Zubietan San Juan bezperan beti jo izan dira gaez ezkilak. Lehenago igual hiru ordu segidan jotzen ziren bi ezkilak (hirugarrena mutua dago, eta ezkil-joleei gazta eta ardoa eramaten zitzaizen ezkil-dorrera. Orain haurrak joaten dira eta ez dute lehenagoko erritmo hura eramaten, oraindik ez baitakite. Baina lasai, hauek ere laister ikasiko dute eta.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



IGELTSERITZA LANAK

Rosa Seminario 2
© 451576 • 450856
DONEZTEBE

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
© 943 - 61 50 55

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

Goizueta

Orain arte bezala, langabetuek Doneztebera joan beharko dute

Ez da gauzatu Leitzan txartelak sellatu ahal izateko proiektua

ESTEBAN AROZENA

Maiatzetik aurrera langabetuek Leitzan txartela sellatu ahal izango zutela esaten bagenuen ere TTIPITTAPAREN azken aurreko alean, proiektu hori ez da gauzatu, eta orain arte bezala Doneztebera joan beharko dute egoera horretan aurkitzen diren guztiak.

Idea honen bultzatzaile eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren arduraduna den Virginia Erasok adierazi zigunez, hemendik aurrera txartelak bertan azaltzen den egun konkretu batean sellatu behar omen dira. Hau dela eta, sellaketa hau ezin izango omen da



Arg.: Xabier Mikel

Gazte Asanbladak antolatutako pala txapelketa Mari Jose Etxeberriak eta Joxe Luis Apezetxeak irabazi zuten eta bigarren postua Arantxa eta Iñigo Apezetxeak eskuratu zuten.

Leitzan egin. Dena den Virginiak dioenez bai udaletxeetan, bai osasun etxeetan eta bai beste lekuetan ere kartel batzuk jarriko dira

interesatuek behar hainbat azalpen jasotzeko. Azpimarragarria da udalek, Donezteberako INEMek eta Gizarte zerbitzuak iritzi ber-

dina dutela honetaz, hau da, txartelak sellatzeko zerbitzu hau deszentralizatu egin beharko litzatekela eta Leitzatik burutu.

Areso

Umeentzako uda ekitaldiak Euskara Zerbitzuaren eskutik

JUANA M^a SAIZAR

Euskara Zerbitzuak umeentzako uda aktibitate batzuk proposatu ditu, jolasak, irtenaldiak, eskulanak, etab... Honen helburua eskolatik kanpo euskara lantzea eta bizitzako hainbat arlotan erabili daitekeen tresna dela konturatzea da.

Kanposantua

...konpontzea (paretak eta nitxoak egin), 14 milioi pezetako aurrekontua izango du.



Xabi, Iñaki, Igor eta Jokinek eskualdeko esku pilota txapelketan parte hartu dute

Arg.: Juana Mari

Udalak ahaleginak egiten ari da langabe-

zia dagoen jendea lana emateko baina di-

putazioa soldataz ba karririk kargu egiten da.

❖ **640 kilo**

arteko Nafarroako 2. mailako sokatira txapelketaren finala jokatu zen herrian maiatzaren 29an, bertako taldeak laugarren postua lortuz. Ligan egindakoaren arabera, emaitza hobea espero zen, baina kontutan hartu behar da bezperan gaupasa antolatua zegoela eta horrek ere nolabaiteko eragina izango zuela noski kirolari batzuen gain.

❖ **Festetako**

programa janzteko marrazkiak eskatuz udalak eskolako haurrei luzatutako deialdiak erantzun ezin hobea jaso du, 69 lan aurkeztu baitira.

ttipi-flash

❖ **Ekainaren 4ean**

lehenengo jaunartzea ospatu zuten Iñaki, Oihana, Xabi eta Unai. Ume guztiek parte hartu zuten dantzari bezala, arkuak eginez sarreran nahiz irteeran.

❖ **3. eta 4. mailako**

umeak lehenengo astean Beirera joan ziren bi egun pasatzera. Pitillas, Uxue eta Olibako monastegia ikusi zituzten. Kurtso bukaerako eskursioan Donostira joango dira eskolako ume guztiak eta trenez egingo dute bidaia.

Leiza

Tolatxeneko Jose Mari Azpirozek 50 urte egingo ditu apeztu zenetik

Ospakizuna dela eta, hilaren 19ko meza nagusia berak emanen du

JOSEBA AZPIROZ

Jose Mari Azpiroz, Tolatxeneko apezak, 50 urte egingo ditu apeztu zenetik hilaren 21ean. Geroztik Donamarian, Lizarran, Luzaiden eta Lesakan bete ditu bere lanak, Iruñako Katedraleko kanonigoa egin zuten arte. Gaur egun, Iruñako zenbait parrokitan euskarazko mezak esaten ditu, apezpikuaren idatziak euskaratzen ditu eta apezpikuari euskara erakusten dio. Euskal Bibliaren itzultzailetakoa da. Ospakizuna dela eta, hilaren 19ko meza nagusia Jose Mari emango du.

Motokrak...

Motoklubak kamioiko moto froga bat antolatu du. Froga, hila-



Tolatxeneko Jose Mari Azpirozek 50 urte bete ditu apez lanetan

ren 19an (igandea) arratsaldeko 3etan hasiko da. 3etatik 3,30ak arte entrenamendua

izango da. 4etatik 4,30ak arte entrenamendu neurtuak, 5etatik 5,30ak arte lehen-

dabiziko manga baliogarria eta 6etatik 6,30ak arte bigarren manga baliogarria.

Laisterketa herritik 100 metrora hasiko da eta Goizuetako bidegurutzea baino kilometro erdi lehenago bukatuko da.

Hauteskunde kanpainan...

Herri Batasunak eta Eusko Alkartasunak bakarrik egin zituzten ekitaldi politikoak.

HBren mitinean Fernando Barrena eta Patxi Zabaletak hitzegin zuten eta euskal presoei omenaldia egin zitaion. EAK berriz, Urkizuko txabolan bazkaria antolatu zuen. Bertara Iñaki Kabases, Fermin Ziaurritz eta Estebe Petrizan etorri ziren.

ttipi-flash

❖ Ginekologia


konsulta goizeko 8,30etatik 11etara ere izanen da aurreantzean, horrela Iruñerako joan etorria autobusean egin ahal izateko.

❖ Neguko

futbol txapelketaren irabazlea Zingurutxo taldea izan da eta bigarrena Rossone-ri. Txapelketa honetan 11 taldek parte hartu dute.

❖ Hilaren 16an

arratsaldeko 8etan Aurreran izango da Inguruarteko futbol txapelketari buruzko bilera. 18an hasiko da eta taldeko 6.000 pezeta ordaindu behar dira.



PRODUKTORA

☎ 510526
LEITZA

Ezkontza argazkiak, bideoak, komunioak, urtebetetzeak, jaialdiak, kirolak, musikaldiak, ospakizunak, erreportai bereziak, bideo klipak, telefilmak...

Kalitatez eta merke eginak

Hona non duzun aukera !!!



EKIPAL

Komertziorako mobleen fabrika

Kalitate eta prezioaren arteko orekarik hoberena

- Edozein klasetako komertzioa duzula,
- ekipatzeko behar dituzun mogle guzti guztiak
- guk fabrikatuko dizkizugu

Lantegia, almazena eta erakusketa:

Bekolanda auzoa • ☎ 514225 • Faxe: 514271 • GOIZUETA



Baztan

Juan Jose Maiora gartzaindarra tiroz hil zuten maiatzaren 29an

M^a Nieves Dagerre zautirua izan zen eraso berean

J. IGARABIDE

Juan Jose Maiora, 33 urteko gartzaindarra tiroz hil zuen ezezagun batek maiatzaren 29ko arratsean, menditik Martintxonea baserrira bueltatzean. Berekin batera heldu zen M^a Nieves Dagerre, Etxezuri baserrikoa ere zauritua izan zen posta tiroz. Emakumeak egun batzuk pasatu ditu Iruñeko ospitale batean, baina dagoeneko Gartzaindera bueltatu da. Hau idazterako orduan ez da inor atxilotua izan eta ez da xehe-tasun gehiagoren berri eman. M^a Nievesek ere ez omen zuen ikusi tiroka aritu zen pertsona.



Iruitako kanposantuan enterratu zuten Juan Jose Maiora D. de Noticias

Kultur Astea ospatu dute Elizondoko erresidentzian

Maiatzaren 28tik ekainaren 3ra ospatu da Elizondoko Erresidentziako Kultur Astea.

Lehen egunean tuna baten bisita izan zuten.

Bertze egunetan bidaiek egin (Urrotzera, Amaiurrera, Lizarrara...), denbora libre, ehizia edo animaliei buruzko hitzaldi inte-

resgarriak aditu, erre-monte eta joko-garbi partiduak ikusi edo beraiek egindako artisauekin gozatzeko aukera izan zuten.



Iruñeko Medikuntza fakultateko tuna erresidentzian izan zen Kultur Astea



Juan Jose Maiora DN

ttipi-flash

- ❖ **2.500.000** pezetako dirulaguntza hartu du udalak Nafarroako Gobernutik, kirol ekitaldiak antolatzeko.
- ❖ **Iruitan** mediku kontsulta paratzea eskatu du bertako alkateak. Horretarako Sagues etxe merkeetan libre utzitako pisu bat egokia izanen dela dio Meokik. Errebote plazan igandetan merkatua egiteko eskaria ere luzatu zuen Iruitako alkateak.
- ❖ **Erratzun** bruzelosia duten behiak atzeman dira eta bi nekazari dexente kaltetuak suertatu dira. Zezenak mendira bota zituztenean kutsatu zirela uste dute eta ondotik behiei pasatu diete eritasuna. Udalak, kutsatutako aziendak herri lurretan bazkatzea debekatu du, Nafarroako Gobernuaren aginduekin bat eginez.
- ❖ **Elizondon** jokaturako 640 kiloko sokatira txapela Lesakak eskuratu zuten.

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortziralera Betatik antzinerara Larunbat eta jaiegunetan zabalik

© 452121 • LEKAROZ

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAKO MODA

Bertako zeramika eta
artisau lanak

Bisutegia

Emakume arropa;
informala eta itxurakoa

ETXEBERRIA

- ostatua •
- jatetxea •
- denda •

besta on batzuk pasa

☎ 453013 • ARIZKUN

San Juan eta San Pedro bestak ospatuko dira Arizkunen eta Erratzun

Musika eta dantzekin batera kirol ekitaldi aunitz izanen dira

A.A.

Arizkunen ekainaren 23an hasiko dira bestak, Haurren Eguna-rekin. Txopo goratzea, suziriak eta txistulariak izanen dira goizetik. Haurren bazkaria eta jokoen ondotik, San Juan suak, sorgin erretzea eta ezkil jotzea. Dantzaldiaren ondotik, goizaldera ziztor-jatea.

San Juan egunean, argi soinuak, meza eta mutil dantzak. Arratsaldean plater tiraketa eta 'Almen' taldea. Goizaldera gasna-jatea.

Larunbatean futbol partidua Lamiarrietan: emakume ezkonduak ezkongabeen kontra. Mus txapelketa akituta, zikiro-jatea bertolari eta soinuarekin. Bazkalondoan asto karrera. Gaez dantzaldia



Erratzun, ortzileriko zikiro-jatearen ondotik pilota partidua izanen dira

eta goizaldera zinger-jatea.

Igandean pilota partidua: Oskoz-Otxandorena, Retegi-Olagueren kontra eta Atxa-Apezetxea, Leitza-Urrutiaren kontra. 4etan neskek txirrin-

dula proba eta 6etan dantzariak. Gaez Iratxo taldea eta goizaldean zirrilden bildure.

Musikaren deskantsotan mutildantzak gauero.

Erratzun, San Pedro bezperako ezkil jo-

tzearekin hasiko dira bestak.

San Pedro egunean, meza ondotik haurren dantzak eta hameketakoa izanen da. Arratsaldean, pilota partidua eta bertolariak: Lizaso, Mendizabal eta

Arozena. Musika Paraiso taldearen eskutik.

Ortzeguna (30), haurren eguna izanen da. Arratsaldean, haur jokoak eta arratsan Joxe Angel akordeolaria arituko da. Ortzilerien zikiro-jatearen ondotik, pilota partidua jokatuko dira. Musika Joxe Angelen eskutik joanen da.

Larunbateko ekitaldi gehienak kirolarekin zerkusia izanen dute. Goizean herri crossa kurrituko da eta arratsaldean jubenil mailako txirringarritza proba. Arratsan Erramun Martikorenaren kantaldia eta Paraiso taldea. Igandean, azkenik, akordeolari kontzertua eta txirringarritza proba izanen dira goizean, herri kirolak arratsaldean eta Paraiso taldea.

ostatua

Tfnoa: 45 31 18 - ERRATZU

Juan Jose Dendarieta

Ostatua - Janaridenda

Albantzena, Tfnoa: 45 31 12 - ERRATZU

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

© 453168 - ERRATZU

ZUBIPUNTA EDANLEKUA

(Sidreria)

JANARIDENDA

Tfnoa: 453111 - Urdatxipi - ERRATZU

IPARLA OSTATUA

Pintxoak eta salda

Aduana aitzinean, © 453153 • ERRATZU

ALTZA ERREKA

Erretegia

Frantziarako bidean, ☎ 453094 • ERRATZU



Ihiztarien biltzar nagusia ekainaren 5ean iragan zen

Basa-oilartegi bat muntatua dute Haranberriko borda aldean eta 140.000 libera inguruko gastuak egin dira joan den urtean

MIXEL ETA JACQUELINE

Ihiztarien biltzar nagusia ginuen ekainaren 5ean.

Biltzar hori Gazteen etxean iragan da, Sarako ihiztari andana batek parte hartzen zuela. Hor aipatu izan dira bereziki urtean zehar Sarako ihiztarien elkarteak burutu dituen ekintzak, hala nola:

- Ihizien libratzea: 66 erbi, 300 untxi (Japin), 300 basa-oilar eta 300 eperkume.

- Basa-oilartegi baten muntatzea: Haranberriko borda aldean berrogoitamarbat basa-oilar heziak dira leku hetsi batean; hauek askatuak izan behar lukete heldu diren urteetan. Agian entsegu hau baikor aterako da.



Rugbya: buruzagitza aldaketa

Maiatzaren 20an onartua izan da arduradun berrien zerrenda. Azken hamabortz urte hauetan lehen-dakari zen Christian

Da Rochak bere kargua utzi du eta berekin lankide guziek. Hunen denboran goren mailarat heldu da rugby taldea: 1987an Fran-

tziako txapeldun orde, 1990an Frantziako txapeldun eta 1992an Euskal Kostaldeko txapeldun.

Buruzagi berria

Pierrot Etxeberria dugu: duela 22 urte rugby taldea sortarazi zuen Sarako Izarra elkartearen gerizapean.

Joan den urtean, 140.000 libera inguruko gastuak eginak izan dira, hauek guti gora behera gaituak

direlarik kanpotarrek ordaintzen dituzten dretxoekin (26.800), 200 saratarrek ordaintzen duten kartarekin

(21.105), usosasoinean Gaztain Lepon biltzen denarekin (52.800) eta bertze.

Bulegoa osatzen

dutenak, Pantxo Pradère lehendakaria, J.M. Nabarte diruzaina eta Jean Marc Aspirot idazkaria dira.

ARLA
ARDOTEGIA
Ardoak eta likorrak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENKO SALMENTA
MINDEGIA eta BULEGOAK:
Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

- Jardinak apaintzeko landareak
- Barneko planta extranjerotik ekarria
- Marokkoko artisau lanak
- Koroiak
- Komunitarako erregaloak
- Ezkontzarako apaingarriak

MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan
Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER

INAKI ITURRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Instalazio zaharren berritzeak
PORTERO AUTOMATIKOAK
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR
Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

Urdazubi

Jantzigintza ikastaroa afari batekin bukatu zen ekainaren 2an

Iparaldeko, Zugarramurdiko eta Urdazubiko hamabortz emakumek parte hartu dute

ALIZIA OLAIZOLA

Jantzigintza ikastaroa ekainaren 2an bukatu zen. Denetara hamabortz emakume izan dira parte hartu dutenak, bai Iparaldekoak, Zugarramurdikoak eta Urdazubikoak eta herriko Anastasi Bidart izan da irakaslea. Ikastaroa ongi bukatzeko, azken egunean afari bat egin zuten denen artean.

Bestetako errifa

Aipatu ginuen bezala lehendabiziko bi sarien jabeak atera ziren eta orain hirugarren sariaren jabea atera da.



4. mailatik 8. mailarainokoak Palma de Mallorcan izan ziren

Urdazubiko Alkerdiko Luziano Etxaide eta bere emaztea M^a Angeles Mitxelenari to-

katu zaie 8.990 zenbakian 'Kaja sorpresa' haundi bat, Mari Luz beren alabari erosia.

Bataioa

Ekainaren 12an, igandearekin, Eneko Ariztia Iribarren mu-

tikoaren bataioa izan zen Urdazubin, urteko bigarrena.



Xokoneko M^a Angeles eta alaba, bestetan tokatutako 'kaja sorpresa'rekin

Zugarramurdi

Akelarrea eta gaupasa larunbatean ospatuko dira

Hainbertze jende etortzea espero da eta sorpresa bat baino gehiago izanen da

KORO ETA MARGARI

Larunbat honetan, ekainak 18, ospatuko da urteroko gaupasa. Gauerdian dantzaldia izanen da *Sustraia* taldearekin. 2 orenetan Akelarrea ikusgarria izanen da, Zugarramurdiko sorginak eta aztiak, Zubietako joaldunak, Beñat Axiari eta David Holmes musikariak eta Txomin eta Paxkal txalapartariekin.

Ondotik, Niko Etxart eta Hapa Hapa taldeak beren azkene-



Akelarrea ikusgarria izanen da aurten ere

ko diska aurkeztuko daukute. Emanaldi hau akitzerakoan, berriz ere *Sustraia* taldea arituko da egunsentirarte. Sarrera 700 pezetakoa izanen da. Aurten diruaren ordeztikeak erabiliko dira eta bertze hainbertze sorpresa izanen dira.

Jende andana bat etorriko delakoan, osatua paratuko da herriko plazan. Herri guziak parte hartzen du gaupasaren antolaketan eta ateratzen den dirua kultur ekitaldiak antolatzeko erabiliko da.

EZKONTZAK

Emmanuel Garate eta Isabelle Arrieta, Sarakoak, ekainaren 4ean.
 Juan Jose Arretxea Apezetxe eta M^{ra} Estrella Barrenetxe Lertxundi, Iurrita eta Arraiozkoa, maiatzaren 28an.
 Ramon Alzuri Huizi eta Ana Gomez Gutierrez, Igantzi eta Irungoa, maiatzaren 21ean.
 Esther Burlada eta Federico Etxeberria, Arantzakoak, ekainaren 4ean.

JAIOTZAK

Unai Aristeta Bengoetxea, Leitzakoa, maiatzaren 28an.
 Olaia Salaberria Larrarte, Goizuetakoa, maiatzaren 21ean.
 Maria Eskudero Arozena, Goizuetakoa, maiatzaren 22an.
 Josu Mentaberri Mitxelena, Zugarramurdikoa, ekainaren 1ean.
 Olatz Mutuberria Mendikoa, NARBARTEKOA, maiatzaren 12an.
 Jokin Hualde Iribarren, Legasakoa, maiatzaren 23an.
 Jon Eneko Iturria Cuartero, Berakoa, maiatzaren 27an.
 Asier Sein Etxeberria, Igantzikoa, maiatzaren 31n.

HERIOTZAK

Eugenio Telletxea, Sarakoa, maiatzaren 31n, 77 urte.
 Juan Cruz Irastorza Beasain, Lesakakoa, ekainaren 3an, 58 urte.
 Pilar Iriarte Dorregarai, NARBARTEKOA, ekainaren 5ean, 72 urte.
 Juan Jose Maiora Apezetxe, Gartzaingoa, maiatzaren 29an, 33 urte.
 Xabier Ariztegi Irigoien, Oitzkoa, maiatzaren 30ean, 16 urte.
 Jose Mari Iparragirre, Arantzakoa, ekainaren 4ean, 50 urte.

SAS KAITZ
 fontaneria
 calefacción

Empresa colaboradora de



**Era guztietako instalazioak:
 Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



Euskal kondoia edo kapota

**eduki beti esku har
 ziur, hoberena dela**

**KULTUR
 ZIKLOA
 94**

BAZTAN

BAZTANGO KULTUR ZIKLOA - CICLO DE CULTURA DE BAZTAN

ERRATZU



EKAINAK 29, ASTEAZKENA
 Arratsaldeko 5etan, Herriko Plazan, BERTSO SAIOA:
 Arozena, Lizaso, Mendizabal eta Elizagoien

ELIZONDO

UZTAILAK 27, ASTEAZKENA
 Arratsaldeko 5etan, Herriko Plazan:
 KUKUBILTZO (Haurrendako antzerki taldea)

AMAIUR

ABUZTUAK 15, ASTELEHENA
 Arratsaldeko 5etan, Herriko Plazan, KANTALDIA:
 Idoia eta Xalbador, Mikel Markez, Pottoka
 ABUZTUAK 16, ASTEARTEA
 Arratsaldeko 4,30etan, Herriko Plazan:
 TXORONPIO ETA PATXI
 (Haurrendako antzerki taldea)



BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak 088/061	
Osasun Zentruak	
Elizondo.....452367 / 580235	Doneztebe..... 450300
Lesaka.....637428 / 637336	Leitza.....510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea .. 102100	SSko urgentzi zerbitzua.....246750
Virgen del Camino erresidentzia.....109400	Gurutze Gorria.....226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....614600	Gipuzkoako ospitala...460299
Erresidentzia.....453800	Anbulatorioak
Irun.....630264/621106	Anbulantziak
Oitz.....450242/450342	DYA
Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622	Doneztebe (larrialdiak).....171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....637404	Elizondo.....580924
Lesaka.....637404	Suhiltzaileak
Oronotz-Mugaire.....592255	Garraioak
Bidasotarra.....631150	Baztanesa.....580129
Leitzarana.....515018	Aberiak:
Iberduero.....450335/450336	



Eskualdeko LAB sindikatuak langabeziaren igoera salatu zuen INEMen aitzonean

Baztan-Bidasoa eta Leitzaaldeko LABek bertako egoera sozio-ekonomikoa eta langabezi tasaren igoeraren kontra mobilizatu zen ekainaren 3an. INEM-ek Donezteben duen bulegoaren aitzonean

bildu ziren 22 delegatu. Bertan errandakoaren arabera, "1980an ez zegoen apenas langabezirik eskualdean eta gaur egun 2.140 langabetu daude". LABen ustez, turismoa ez da alterna-

tiba izaten ahal, ekonomiaren osagarria baizik. "Alternatiba bat izateko produkzio sistemaren kontzeptzioa aldatu beharra dago" erran zuen sindikatuak Donezteben banatutako idatzian.

Gastronomiari buruzko ikastaroak Turismo Partzuergoaren eskutik

Bertiz Partzuergo Turistikoan bilduak dauden Jatetxe eta Ostiatuen elkarteek, gastronomiari buruzko ikastaroak antolatu dituzte egun hauetan. Orain arte "Ahatea sukaldaritzan" eta "Jangela zerbitzua"

izenekoak burutu dira Almandozko Beolan eta Elizondoko Santotenen. Bietan maila haundiko sukaldariak eta ostalariak parte hartu dute irakasle gisara.

Ekainaren 20, 21 eta 22an berriz, pin-

txoei buruzko ikastaroa burutuko da Doneztebeko El Cafe ostiatuan. Bertan izanen dira Jesus Santamaria, Donostiako Oñat ostatukoa eta Alex Mujika, biak ere esperientzia haundikoak pin-txoen munduan.

Ia 30 milioi eman ditu Nafarroako Gobernuak mendiak hobetzeko

28.288.372 pezetako dirulaguntza eman du aurten Nafarroako Gobernuak gure eskualdeko mendiak hobetzeko. Mendi hauek 5B zonaldean kokatuak daude eta honela banatu dira laguntzak:

Bera, 9.956.291 pztza; Bidasoa-Berroarango junta, 3.719.500 pztza; Lesaka, 3.719.003 pztza; Etxalar, 3.614.980 pta; Goizueta, 2.803.500; Doneztebe, 2.120.000; Elgorriaga, 1.389.512; Igantzi, 571.586; Arantza, 394.000.

Ikasturte berriaren hasiera datak ezarriak dira

Irailaren 12an hasiko da ikasturtea Eskolaurre, Lehen Hezkuntza, OHO eta Hezkuntza Bereziko ikasleentzat, eta irailaren 23an, (ortzirala) Batxilergoa, REM eta Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleentzat.

PELUAGA SINTESIS



- OSAGARRIAK
- BOLTSOAK
- PAINUELOAK
- BITXIAK
- ZAPELAK

GAURKO EMAKUMEARENTZAKO MODA

Colón Pasealekua 7 • © 943-622816 • IRUN



GIZONEZKOEN MODA

Negozia ixten dugula eta, LIKIDAZIO OSOA

IRUNgo LUIS MARIANON

Lesakako mutilak 640 kilotan eta Berriozarko neskak 520tan, txapeldun

640 kilotan, bigarren mailako txapelketa Aresok eskuratu zuen eta larunbat honetan Lesakan bertan burutzekoa da 560 kiloko finala

Lesakako Beti Gazte taldeak eskuratu du Nafarroako sokatira txapela 640 kilotako kategorian. Elizondon ekainaren 5ean jokatu-tako final ikusgarri batean Amaurreri -Euskadiko txapelduna kategori honetan- bi tiraldiak irabazi zizkion. Halere, gogor lan egin behar izan zuten, tiraldi bakoitzak 3 minututik goiti iraun baitzuen. Lesakako taldea Estatu Batuetara joatekoa da datorren astelehenean, bertan zenbat erakustaldi egiteko Nevadako



Aresok irabazi du txapela bigarren mailako 640 kilotan

Arg: Artxiboa

Elko hirian.

Hirugarren postua Basaburuak eskuratu zuen, laugarrena Larraun, bortzgarrena Araitz-Betelu eta sei-garrena Berriozar.

Nesketan berriz, uste bezala, Berriozarko neskek suertatu ziren txapeldun, bigarrena Larraun eta hirugarren Etxauriko Arana.


Goizuetan burutu-tako bigarren mailako txapelketan berriz, Areso izan zen txapelduna, Etxauriko Arana, Berriozar eta Goizuetaren aitzinetik.



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

*Aprobetxa ezazu **koltxoiak** aldatzeko eskaintzen dizugun aukera berezia*
*Kalitate hobereneko **koltxoiak** arras prezio interesgarrietan*

Inaxio Errandoneak jokatu du eskuz banakako finala Arretxeren kontra

Alkaiagako pilotariak, Ladis Galarza menperatu zuen hiruen arteko ligillaren azken partiduan

Inaxio Errandonea eta Fernando Arretxek jokatu dute Ogeta frontoian aurtengo eskuz banakako pilota txapelketaren finala, oraindik zehaztu gabeko egun batean. Hasera batean, igande honetan jokatu behar zen, baina Arretxe eskuko minarekin dagoela eta giberatu da.

Inaxio Errandoneak ligillako azken partidua irabazi zion Ladis Galarzari, ustekabe izugarria emanek. Alkaiagako mutilak partidua bukatuta erran zuenez, "nere ametsa bete duz, eta Arretxeren kontra galdu nuen bezala galdu ondorian, haundiei irabazteko gai naizela erakutsi nahi nuen".

Julian Retegi erretiratu ondotik, bazirudien denbora aunitz pasatu beharko zela



Inaxio Errandoneak bere ametsa bete du

eskualdeko pilotari bat finalean ikusteko, bai-

na Inaxiok bere sasoi ona erakutsi du.



Gure Txokoa taldeko neskek igande honetan jokatu dute Gipuzkoako Koparen finala. Hau idazterakoan emaitza ez badakigu ere, ez du nolana hiko denboraldia egin Berako taldeak: Ligako txapelkunak eta Kopako finalistak. Agian txapelkun suertatu dira.

Kirol ekitaldiz betetako bestak Arizkunen eta Erratzun

Herrietako bestetan kirol ekitaldi sobera ez dira izaten normalean. Halere, Arizkunen eta Erratzun kirolari tarte handia utzi diote eta zenbaitekitaldi izanen dituzte San Juan eta Sanpedrotan barrena.

Honela, Arizkunen ekainaren 25ean (larunbata), herriko emakume ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua jokatu da Lamiarrietan.

Igande goizean pilota partidua izanen dira: lehenbizi, Oskoz eta Otxandorena, Retegi eta Olaguereen kontra arituko dira eta ondotik, Atxa eta Apezetxea, Leitza eta

Urrutiaren kontra. Arratsaldean, nesken txirindularitza proba burutuko da.

Erratzun ere pilota partidua jokatu dira San Pedro egunean eta biharamonean. Larunbat goizean herri crossa kurrituko da eta arratsaldean jubenil mailako txirindularitza proba. Igandean ere bertze txirindula laisterketa egiteko da goizean eta arratsaldean berriz, herri kirol saioa.

Erdikaldeko koaldernilloan ikusten ahal denez, Donezteben ere izanen da kirolarandako lekua: erremontea, herri kirola, etab...

Hamabostaldiko jokaldiak



Inaxio Errandonea Alkaiagako pilotaria.

Retegi IIak eskuz banakako txapelketa utzi ondotik zaila zen eskualdeko profesional batek final handira ailegatzea, baina lehenbiziko txandan lortu du Inaxiok. Ea finalean itxura ona ematen duen.

Txapelketako sarreren prezio garestiak.

Asegarce enpresak gauza onak ekarri dizkio pilotari, dui-kabe. Halere, aurtengo txapelketako partiduetan sartzeko jarri dituzten prezioak izugarriak iduritzen zaizkigu eta jendeak araberan erantzun du.

KONTZERTUAK

ZUGARRAMURDI

Ekainaren 18an
Akelarre Gava lezeetan: Sustraiak taldea, Beñat Axiari eta David Holmes kantariak; Txomin eta Paxkal txalapartariak eta Niko Etxart & Hapa-Hapa.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Maiatzaren 28tik ekainaren 30era

Angel Urangaren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 7etatik 9etara.

BERTIZ

Uztailaren 3a bitarte 'Antzinako emakumeak' argazki erakusketa jauregiko behe solairuan.

Goizeko 10,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

GUARDIAKO BOTIKAK

Ekainaren 13tik 19ra Etxalar, Doneztebe, Elizondo (F. Lezaun), Goizueta

Ekainaren 20tik 26ra Lesaka, Sunbilla, Irurita, Urdazubi, Goizueta, Leitza

Ekainaren 27tik uztailaren 3ra Bera, Ituren, Elizondo (J. Iurralde), Goizueta

ERREZETA



Limoi tarta

Osagaiak

- *hojaldre masa* • 200 gr. *al-mendra ehoa* • 7 *arraultze* • 250 gr. *azukre* • 120 gr. *gurin* • 5 *limoi* •

Prestatzeko manera

Hojaldrea ongi zabaldu eta molde batean jarri.

Bertze ontzi batean gurina urtu behar da eta bertara bota arraultzeak, azukrea eta almendra ehoa. Guzti hori ongi ongi nahasi lehenik eta behin nahasia dagoen, limoi azalari kendutako birrinak edo ralladura gehitu. Behin prozesu guzti hori egina dagoenean, hojaldrea presta-



Malentxo MARTIARENA
Altza Erreka erretegia
•Erratzu•

tzeko erabili dugun moldera botako dugu prestatu berri dugun masa. Labean sartu, ezti-eztian, eta utzi ordu batez bederen, ongi egin arte. On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 4.900 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 170 pzta/kilo
- **Zerramak**: 105-110 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal
- Extra 595-600
- 1.koa 570-580
- 2.koa 540-550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra 605-610
1.koa 580-590
2.koa 550-560
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 25-30.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.
- Mestizoak:** urruxak 35-40.000 eta idixkoak 45.000 pzta.
- **Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizena: 450 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480-510 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitzatza

- **Bertako sagarrondoak** 930.
- **Udareondoak** 930 pta.
- **Gerezioondoak** 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.
- **Valentziar tipula** zient. 250.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Azelga** zientoa 400 pta.
- **Pepino** sorta 25 pta.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egu rretan egindakoak

JAKIN BEHARREKOA

Etorkizunerako aurrezki planak

Gaur egun banketxe, kutxa edo aseguro etxeek etorkizunerako planak eskeintzen dizkigute. Funtsean, plan hauen azpian dagoe-na zera da: aurrezteko eta desgrabatze formula desberdinak. Bi era diferente daude hauek garatzeko: Jubilazio Plana batetik eta Pentsio Plana bertetik. Ale honetan lehenengoaz arituko gara.

Jubilazio Plana jada etxea errosia eta eguneroko oreka aseguraturua dutenentzat da interesgarri eta baita errenta aitortpena egiterakoan ordaintzea tokatzen zaienentzat eta desgrabatze modua bilaka ari direnentzat. Jubilazio Plan hauetan bi modalitate daude; aseguroa dutenak eta ez dutenak. Desgrabatze momentuan diferente funtzionatzen dute biak, eta aztertzeko kontua da beranduago ikusiko dugun bezala.

Plan hauetan, ordaindu beharrekoa edo prima, flexibla da epe eta kopuruetan. Normalena, 5.000 eta 10.000 pta. artean izaten da kopurua

eta ordaintzea epea hila-betekoa. Baina edozein arrazoiengatik ordaintzetik utzi baldin bada, segitzen ahal da nahi den momentuan. Bertzalde, nahi izanez gero, ez ohizko aportazioak ere egin daitezke mugarik gabe.

Nahi denean kantzelatzen ahal da Plana eta dirua berreskuratuz, %6ko errentabilitatea garantizatua baitago.

Nola desgrabatzen dira Jubilazio Planak?

Jubilazio Plana asegurorik gabe kontratatu dutenek, hamar urterako gutienez kontratatu beharko dute %10a desgrabatze urtean. Aseguroarekin kontratatu dutenek, berriz, edozein 'Bizitza Ase-



Jubilazio Plaza jada etxea errosia eta eguneroko oreka aseguraturua duenentzat da interesgarri.

guru" bezala %10a desgrabatuko dute kontratuaren epea kontutan hartu gabe.

Plana bukatzerakoan edo, dirua eskuratu nahi duenak nahiz eta epea bukatu gabe egon, modu desberdinak ditu likidazioa egiteko; dena batera, hau da, jarri duzuna gehi etekinak; zatika, pentsio modura; edo bertze zenbait.

Azkenik, aipatu, Planak norberak beretzat edo batek bertze batentzat (seme-alabentzat) egiten ahal dituela. Azken modu honetan adibidez, Jubilazio Plana egiten duenak desgrabatze ahalmena du eta dirua seme-alabentzat izanzen litzateke, unibertsitatera joateko, pisua erosten laguntzeko, e.a.

BESTAK

ARIZKUN

Ekainaren 23tik 26ra. Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

ERRATZU

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra. Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

SALDIAS

Ekainaren 23tik 26ra. Hau idazterakoan ez genuen xehetasunik.

DONEZTEBE

Ekainaren 28tik uztailaren 3ra. Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

BERTSO SAIOAK

ERRATZU

Ekainaren 29an arratseko 8etan herriko plazan M. Arozena, Mendizabal eta Lizaso. Gai-jartzaille: Elizagoien.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Ekainaren 20tik 23ra arratseko 8etatik 10etara, Arizkunenea Kultur Etxean, izarrak ezagutzeko ikastaroa, Nafarroako Astronomia Elkarteak emana.

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

✎ BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

✎ REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurdurak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetesa, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

SUNBILLA. Pisua alokatzeko frontoiaren ondoan. ☎ 450916 (ilunabarretan).

BERA. San Esteban karrikan pisu berri-berria salgai. ☎ 630407.

ZIZUR NAGUSIA. Herrian 71 m2ko pisua salgai. 3 gela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 7.500.000 pezeta. ☎ 183165 (bazkalordutan).

DENETARIK

Borda bat erosiko nuke. ☎ 451600.

Logela baten bila nabil Iruñaldean. ☎ 170151 (Amaia, goizez).

BERA. Gela alokatuko nuke, ahal bada bakarrik bizi den emakumeren baten etxean. Ni ama bat

naiz eta alaba txikia dut nirekin. ☎ 631049 (gauze).

IBILGAILUAK

Renault 12 familiarra, SS-8312-O matrikuladuna salgai, 100.000 pezetan. ☎ 581212.

Ford Sierra 2.0i, NA-T matrikulakoa salgai. Hiru hilabeteko garantia. ☎ 637160.

Citroen Visa Stilo TRS 1.4, NA-P matrikulakoa salgai. Egoera onean. ☎ 599176 (eguerditan).

Rieju MR80 motoa salgai. Matrikulatua, seguroarekin eta ia berria. ☎ 630165 (8etatik 10,30etara).

Seat Trans Furgoneta mixta salgai. 9 urtekoa, 90.000 pezetan. ☎ 510524.

AZIENDAK

Zakur sabuesoa salgai, 4 urtekoa, erbi eta azeri ehizirako. ☎ 450907.

Pekines arrazako zakurra salgai, 2 hilabetekoa eta ile motza. ☎ 514040.

Behia eta miga bat salgai. ☎ 634133 (eguerdi eta arratsetan deitu).

Ahare bat salgai 25.000 pezetan. Bi urte eta adar motzekoa. ☎ 510204.

Bi ardi-zakurkume erregalatuko nituzke. ☎ 634674 (Arantzan).

LANA

24 urteko bi neska orduka lan egiteko prest daude. ☎ 637734 (Lourdes).

Udan irakasle tituluduna Beran edo Lesakan klase partikularra emateko prest (OHO, euskara, frantsesa, REM). ☎ 630182 (Clarisa).

Neska bat prest dago haurrak edo adinekoak zaintzen edo euskarazko klase partikularrak ematen lan egiteko. ☎ 637911 (Eduerne).

Frantsesa eta ingelesa, etxean eta zure lagunekin ikasi nahi duzu? Prest nago irakastera joateko. ☎ 631049 (gauze).

AGURRAK

Urdazubiko Alizia Olazolarentzat, zure 22. urtebetetzean (ekainak 2) zorionak eta ea ospatzen dugun. Zure lagun bat.

Oitzko Martin Sagardiarri: ongi pasa dezala bere urtebetetze egunean (maiatzak 27). Berako iloba eta familiaren partez.

Zigako Karmentxu Mendiburu eta Doneztebeko Jose Ezkietari: zorionak zuen ezkontza egunean (ekainak 25). Kutxi-kutxi.

Lekarozko M.O.ri: suerte txarreko neska zarenez, ea nerekin suerte hobea izaten duzun. 8. mailako mutil bat. Muxu haundi bat. Zure segitzailea.

Arantxa Etulain-i: ekainaren 8an izan zen zure urtebetetzea. Zorionak zure lagun guzien partez.

Berako bi mutilen partez, Izaskun Sein eta Ainhoa Altzuriri biak oso onak daudela.

Narbarteko Begoñarentzat: ekainaren 4ean bere urtebetetze eguna izan zen. Zorionak bere familiaren partez.

Lesakako Jon U.ri: Doneztebeko bestetan afora antolatutako dugu koadrillakoak. Espero zaitugu. Zure lagunak.

Leitzako Mainerrentzat: zorionak azterketa guziak gainditzeagatik.


Goizuetako J. Apezetxeari: Zorionak zure urtebetetze egunean. Zure lagunak.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntza akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**
Irun

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXAn**
zeure diruari

% 7,5

**ERRETENTZIORIK
GABE**

T.A.E.

arte emango dizugu

Pasa zaitez geure bulegoetatik

BERA • DONEZTEBE • LEITZA • LESAKA •



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

4

ERAKUSKETA ZURE ONDOAN

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

erakusketa

*Senar-emazteen
logela*

erakusketa

*Sukaldea-Bainua
Arm. enpotratuak*

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

erakusketa

Jangela

ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
IREKITZEN DUGU,
GOIZ-ARRATSALDEZ

erakusketa

Gazteendako

¡¡FELICES FIESTAS!!
¡¡BESTA ZORIONTSUAK!!



GAN

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA